

Gerizpean →

Txakurren eta gizakien arteko lotura baliatzen dute Sakanako Mendilur elkarteak gizakien osasunean eragiteko eta gaixoei gaitza gainditzen laguntzeko.

Txakurra, eritasunean lagun

Iñigo Astiz Iruñea

Gizakiaren lagun onena omen da txakurra. Laguna lanean, laguna bakardadearen aurka, eta baita gaixotasunean ere. Hala izan dadin saiatzeko dira Sakanako Mendilur Elkarteak kideak, animaliekin egokitutako terapia (AET) izenokoa landuz. Animaliekin egiten diren esku-hartze terapeutikoak dira AET deitzen direnak, eta animalien eta gizakiaren lotura baliatuz gizakien osasun eta ongizatean eragitea dute helburu. Ez da medikuntza tradizionalaren alternatiba, osagaia baizik. Hainbat animaliarekin egiten dira saio horiek, eta txakurrak erabiltzen dituzte Mendilurrekoek.

Aurten sortu dira elkarte gisa, baina lehenagotik ere bazuten esperientzia. Alejandro Ibarra txakur hezitzailea da elkarte kideetako bat, eta lehenago ere jendea lagundu bazuen ere, eskariak gora egin, eta horregatik erabaki zuten elkarte gisa antolatzeari. Sei kide dira taldean. «Sakana inguruko sei pertsona gara, sei, izena ematen dugunak, baina askoz ere gehiago dira izenik eman gabe laguntzen gaituztenak».

Urte mordo darama Ibarra lanerako txakurrak hezten, eta oinarritzko obediencia ikastaroak eskaintzen, eta duela hiru urte hasi zen AETak lantzen. Haur autistekin, jende depresiodunekin, down sindromedun jendearekin eta kimioterapia tratamenduan dauden pertsonekin ere egin ditu saioak. Kasuz kasu, ezberdina izaten da terapia. «Depresioari aurre egiteko, adibidez, txakurrak erabiltzen erakusten diegu, indarra hartzen dute haiek ere egin dezaketela ikusten dutenean». Dioenez, gainera, emaitza onak biltzen ari dira, eta pozik agertzen da jendea bilakareekin. Tratamendu guztiek, gainera, elkarte kide Marta

Torres psikologoaren laguntzaz garatzen dira. Terapiak ez ezik, bestelako laguntza ere eskaintzen dute. Txakur bat eman diote orain gutxi Gasteizko haur itsu bati. «Bidegurutzetan nola jokatu jakiteko, sokari kasu egiteko, igogailuan ibiltzen jakiteko eta objektuak hartzeko hezi dugu. Haurrak egin ohi duen ibilbide berean hezi dugu txakurra kasu honetan». Kasuz kasuko beharren arabera aukeratu eta hezten dituzte txakurrak. «Oinarritzko heziketa jasotzen dute txakur guztiek, hasiera batean, baina gero, tratatu nahi denaren arabera, edo izango duten funtzioaren arabera, hezten ditugu».

Hamar txakur dituzte, baina haietako bi dira terapietan erabiltzen dituztenak, baina badaude antzarekin lan egiteko hezitako txakurrak ere, ume autistekin aritzen dira. «Antzarekin ibiltzen ditugu txakurrak, eta haurrek txakurra non dagoen adierazi behar dute beren gorputz atalekin, txakurra eskuinean, ezkerrean, atzean edo aurrean dagoen. Beren gorputzarekin hitz egitera animatzen ditugu. Gero, txakur-

Doakoak izaten dira Mendilur elkarteak eskaintzen dituen terapia saioak

Down sindromea dutenekin eta haur autistekin egiten dute lan, besteak beste

kume batzuk ere askatzen ditugu, haurrek lastan ditzaten, eta haiekin harremanetan jar daitezten. Txakur sokadunekin ere egiten dugu lan, eskumuturrean mina duen haur bat laguntzeko, indarra hartzen joan dadin».

Badaude halako terapiak garatzen dituzten beste guneak ere, baina, maiz, garestiak izaten dira. Ez da Mendilurren kasua,



Terapia ez ezik, bestelako laguntza ere eskaintzen dute elkarteak. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



Hamar txakur dituzte, baina bi erabiltzen dituzte terapietan. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Ibarra azaldu duenez, doakoak baitira haiek antolatzen dituzten saioak. Boluntarioak dira kide guztiak, eta asteen behin antolatzen dituzte saioak. «Hainbat enpresaren diru laguntza jasotzen dugu horretarako».

Udaletxeen eta inguruko enpresen laguntzaz gainera, partikularrek ere lagun dezakete dirua Euskadiko Kutxako kontu ireki batean sartuz. www.mendilur.org webgunean aurki daiteke kontuaren zerbakiak eta elkartearen buruzko informazio gehiago.

Ez dira txakurrak halako terapietan erabiltzen diren animalia bakarrak. Zaldiak ere erabiltzen dituzte hainbat elkarte. «Zaldiekin lan egiten duen Asturiasko (Espainia) zentro batekin harremanetan gaude, noizean behin elkarlanean aritzeko».

Oraingo txakurrekin bakarrik egiten dute lan Mendilurrekoek, baina elkarte kide bat zaldiak hezten ikasten hasi da, eta etorkizunean zaldiak erabiltzea dute helburu.



Oraingo txakurrekin bakarrik lan egiten dute elkarteak. J. MANTEROLA / ARP